

101

101

# SAN LUCASEN

## EBANJELIOAREN PARTEAC.

---

JESUSEN JAYOTZA.

CAP. II. 7-14.

7 ETA [Mariac] eguin zuan bere semea, eta bildu zuan zapietan, eta etzin zuan gambelan, cergatic etzegoan ayentzat toquiric ostatuan.

8 Eta Ceuden inguru artan ardizai batzuec, gabaz beren ganadua gordetzen ceudenac.

9 Eta ona emen, jarri zan beren ondoan aingueru bat, eta Jaungoicoaren arguiac ingurutu cituan bere edertasunez, eta artu zuten bildur aundia.

10 Eta aingueruac esan cien : Ez bildurtu : cergatic ematen dizutet poz aundi bat, izango dana erri guztiarentzat:

11 Cergatic jayo dan gaur Salbadorea, dana Cristo Jauna, Dabiden errian.

12 Eta au izango da señalear: Arquituco dezute aurra zapietan bilduta, eta gambela batean etzinda.

13 Eta bereala agurteu zana aingueruarequin ceruco miliciaco tropa aundi bat, Jaungoicoa alabatzen zutena, eta esaten zutena:

14 Gloria Jaungoicoari goyetan, eta paquea lurrean borondate oneco guizonai.

### JESUS ASITZEN DA JAQUINDURIAN

#### ETA EDADEAN.

CAP. II. 40-47.

40 ETA aurra asitzen zana, eta gogortzen zana jaquinduriaz beteric cegoala: eta Jaungoicoaren gracia cegoan berequin.

41 Eta bere aitac juaten ciran urte ero Jerusalem Pascuaco egun aundian.

42 Eta amabi urte cituanean igo ciran berac Jerusalem, festaco egunaren usaera becela.

43 Eta egunac acabatu ciranean, biurtzen cirala, guelditu zana Jesus Jerusalemenean, bere aitac ezagutu gabe.

44 Eta sinisturic bera lagunenean artean cegoala, ibilli ciran egun bateco bidean, eta billatzen zuten bere aide eta ezagunenean artean.

45 Eta nola etzuten arkitzen, biurtu ciran Jerusalem, billatzen.

46 Eta guertatu zana ce, iru egunen ondoren arquitu zuten Jaunaren echean, jaquin zuten erdian eseriric, ayei aditzen, eta galdezen.

47 Eta arritzen ciran bere ezagueraz, eta erantzueraz, aditzen cioten guztia.

### ERRIAC ETORTZEN DIRA JESUS ADITZEA

#### GATIC, ETA BEREN GAITZETAN

#### SENDATUAC IZATEA GATIC.

CAP. V. 12-15.

12 ETA guertatu zana ce, erri ayetaco batean ceudela, etorri zana guizon ezcabiz betetaco bat; eta Jesus icusi zuanean auzpez jarriric lurrean, erregutu cion esanaz: Jauna, nai badezu, garbi nazazu:

13 Eta berac escua luzaturic, icutu cion esanaz: Nai uet: garbi zaite: eta bereala quendu citzayon ezcabia.

14 Eta aguindu cion, ez ñori esateco: baña jua zaite, esan cion, eta presentatu zaitez sacerdotcarean gana, eta ofrecitu zazu zure garbitasuna gatic, Moisesec aguindu zuan becela, ayentzat fedean.

15 Eta aimbat gucyago zabaldu zana bere fama: eta erriac tropelean etortzen ciran bera aditzea gatic, eta beren gaitzetan sendatuac izatea gatic.

## CRISTOREN PREDICACIOA.

## CAP. XII. 4-12.

4 ZUEI bada, nere adisquideac, esaten dizutet: etzaitecela icaratu, corputza iltzen, eta guero gueyago cer eguinic ez daucaten ayec gatic.

5 Baña nic eracutsico dizutet cefñ bildurra ediqui bear diozuten: bildurra izan zazu bicia quenduta guero infernura botatzeco poderea daucan argatic. Ala esaten dizutet, onezaz icara zaitezte.

6 ¿ Ez dira saldutzen bost chori, cuarto bian, eta ayetatic bat ere ez dago aztua Jaungoicoaren aurrean?

7 Eta zuen buruco illeac ere, guztiaac daude contatuac. Ez bada bildurtu: cergatic zuer ceraten estimacio gueyagocoac chori asco baño.

8 Baitaere esaten dizutet: Guizon aurrean confesatzen nabena; Jaungoicoaren Semeac confesatuco du bera ceruco aingueruen aurrean.

9 Baña guizonen artean ucatzen nabena, ucatua izango da Jaungoicoaren aingueruen aurrean.

10 Eta guizonaren Semearen contra itz bat ateratzen duen guztia, izango da barcatua: baña Espiritu Santuaren contra blasfematzen duanari, etzayo barcatuco.

11 Eta Sinagoguetara, Magistraduetara, eta Potestadeetara eramaten zaituztenean, etzaitzeltela ibilli contutsuac, nola edo cer erantzun, eta esan bear dezuten;

12 Cergatic Espiritu Santuac eracutsico dizute ordu artan esatea combenico dana.

## P A R A B O L A.

## CAP. XVIII. 9-14.

9 ETA [Jesusec] esan cien ere parabola au, beretan fiatzen ciran batzuei, justuac balira becela, eta besteac despreciatzen cituztenai.

10 Guizon bi igo ciran Templora erregutzera: bata Phariseoa, eta beste Publicanoa.

11 Phariseoac, zuti cegoala, erregutzen zuan bere barrenean modu onetan: Jaungoicoa, gracia ematen dizquitzut, cergatic ez naicen beste guizonac becela, lapurra, justuezac, adulteroac; Publicano au becela:

12 Astean bi bider barau eguiten det; dauquedan guziaren amarrenac eguiten ditut.

13 Baña Publicanoac, urruti cegoala, etzituen beguac cerura alchatzen, baicic eritzen zuan bere pechua, esanaz: Jauna, aguertu zaitez ni peccariarequin lagunguillea.

14 Esaten dizutet au, eta ez ura jechi zala justificatua bere echera, cergatic bere burua alchatzen duan guizon guztia, izango da umillatua: eta umillatzen dana, izango da alchatua.

## JESUS GURUTZIFICATUA DA.

CAP. XXIII. 32-47.

32 ETA ceramaten berequin beste bi ere, ciranac gaitzqui eguilleac, illac izateco.

33 Eta allegatu ciranean Calbariocoa ceitzayon lecura, gurutzificatu zuten an, eta lapurrac, bata escuyan eta bestea ezquerrean.

34 Baña Jesusec esaten zuan: Aita barca eguiezu, cergatic ez daquiten cer eguiten duten: eta bere soñecoac partitu eta, suerteac bota cituzten:

35 Eta erria cegoan beguira, eta Principeac oyequin batera injuriatzen zuten, eta esaten zuten: Besteac salbatcen cituen, salbatu bedi bera, Cristoa baldin bada, Jaungoicoaren autua.

36 Soldaduac ere burla eguiten cioten, alderatuaz bere gana, eta ozpiña eracutsiaz,

37 Eta esanaz: Judioen erreguea hacera, salbatu zaitez;

38 Eta cegoan bere gañean titulu bat Griegozco, Latinezco, eta Hebreozco letretan: Au da Judioen erreguea.

39 Chinchilica ceuden lapur ayetaco, injuriatzen zuan esanaz: Baldin zu hacera Cristoa, salbatu zaitez, eta salbatu gaitzatzu gu ere.

40 Baña besteac erantzunaz, erriertatu zuan esanaz: Suplicioan bertan zaudela ere, ez dezu zuc Jaungoicoaren bildurric.

41 Eta gu eguiaz gure culpaz, cergatic erreci-

bitzen degun gure obrac mereci dutena: baña onec ez du batere gaitzic eguin.

42 Eta esaten cion Jesusi: Jauna acordatu zaitez nigaz, zure erreinura zatocenean.

43 Eta Jesusec esan cion: Eguiaz esaten dizut: Gaur izango cerala nerequin Paraisuan.

44 Eta ciran casi seyac, eta lur guztia estal izan illuntasunaz, nonaco orduraño.

45 Eta illundu zan eguzquia, eta temploco beloia urratu zan erditic.

46 Eta Jesusec deadar aundi bat eguiñaz esan zuan: Aita, zure escuetan encomendatzen det nere espiritua; eta au esanaz, il zan.

47 Eta centurionec icusi zuanean, guertatu zana, glorificatu zuan Jaungoicoa, esanaz: Eguiaz guizon au zan justua.

## JESUSEN ERRESURRECCIOA.

CAP. XXIV. 1-9.

1 ETA astearen aurreneco egunean juan ciran goicetic sepulcrora, preparatu cituzten aromac eramanaz:

2 Eta arquitu zuten losa mubitua sepulcrotic.

3 Eta sartzean etzuten arquitu Jesusen corputza.

4 Eta guertatu zan, ce icaraturic onegatic, ona emen, guelditu cirala beren ondoan guizon bi, soñeco arguitsuaquin.

5 Eta nola ceuden icaratuac, eta arpeguia lur-  
rera jetzitzen zuten, esan cieten : ¿Cergatic bi-  
llatzen dezute illen artean bici dana?

6 Ez dago emen, baña piztu da, acorda zai-  
tezte esan citzutenaz, oraíndic Galilean cegoala,

7 Esanaz : Guizonaren Semea, guizon peca-  
tarien escuetan entregatua izatea combeni da, eta  
izan dedilla gurutzificatua, eta irugarren egunean  
piztua.

8 Orduan acordatu ciran beraren itzaz.

9 Eta irten ciran sepulcrotic, eta juan ciran au  
guztia contatzera amaica ayei, eta beste gañeraco  
guztiai.